



BIZI (MODU) OSASUNTSU(AN)!

BIGARREN HEZKUNTZARAKO AISIALDI ESKAINTZA

AISIALDI MONITORE IKASTAROA

Ikastolen Elkarteko Aisiola begirale eskolak Audio Ikastolan eskainiko duen begirale ikastaroan izena emateko epea luzatu dugu abenduaren 1era arte.

Ikastaro honen bidez, aisialdiko esparruan jarduteko trebetasun aberasgarriak lortzen dira, horien artean, talde dinamikak, ikasleen arteko elkarrekintzak, naturako baliabideen erabilerak...

Ikastaroak 310 orduko (150 teoriko eta 160 praktikoko) iraupena dauka eta bi ikasturtetan burutzen da, 2022ko urtarrilean hasi eta 2023ko udan bukatuz.

Ikastaroa amaitzean, ikasleek, Lanbideek emandako HAUR ETA GAZTEEN AISIALDIKO JARDUEREN DINAMIZAZIOA izeneko 2.mailako gaitasun ziurtagiria titulu ofiziala jasoko dute.

Informazio gehiago nahi izanez gero, aisiola@ikastola.eus helbidera idatzi edo 944 354 340 telefonora deitu. Animatu ikastaroan parte hartzera!

izena eman 

AUTODEFENTSA FEMINISTA

DBH3TIK BATXILERGO 2 BITARTEKO NESKENTZAT

DATA: abenduak 18, larunbata

ORDUTEGIA: 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
*ordutegia partaiden beharretara moldagarria da.

LEKUA: Ikastolako areto nagusia

KUOTA: 10€

IZEN-EMATE EPEA: abenduaren 10 arte. Gutxienez 8 eta gehienez 20 partaide.

EMAGIN zentro feministarekin elkarlanean eskainitako ekintza.

HELBURUAK:

Emakumeek indarkeriarekiko ditugun bizipenak konpartitu eta bildu. Esperientzia ezberdinak partekatu eta iritzi trukaketa egin.

Elkar entzun eta beldur eta emozio ezberdinei buruz lasai hitz egiteko tarte eta espazioa eskaini.

Indarkeria egoerak, eraso ezberdinen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean landu.

Autodefentsaz aritu eta autodefentsa feministaz ulertzen duguna komunean jarri eta erasoei aurre egiteko estrategiak landu.

Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakondu.

izena eman 